# EKONOMIA ZIRKULARREKO ETA BIOEKONOMIA PLANA 2024

Jarraipenerako txostena 2022

NEIKER
MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

AURKIBIDEA


01 TXOSTENAREN HELBURUA JARRAIPEN-METODOLOGIA

02 EKONOMIA ZIRKULARREKO ETA BIOEKONOMIA PLANA 2024

03 PLANA EGIKARITZEA: EKINTZAK, EKINTZEN EMAITZAK ETA AURREKONTUA

04 PLANAREN INGURUMEN-INPAKTUA. ADIERAZLEAK

05 ONDORIOAK

# 01 JARRAIPENERAKO TXOSTENAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA

**Ekonomia Zirkularreko eta Bioekonomia Planaren Jarraipenerako Txostenaren** helburua Planaren beraren aurrerapen-maila ebaluatzea, desbideratzeak aztertu eta neurri zuzentzaileak proposatzea da.

Horretarako, txostenean 2022 bitartean, jardute-ildo mailan, erdietsitako aurrerapenak berrikusiko dira.

** Planaren gobernantza-ereduarekin bat etorriz, bi urtez behingo jarraipenerako txosten bat (2022) eta azken ebaluazioaren txosten bat (2024) egingo dira.*

**Jardute-ildo bakoitzaren** aurrerapen-maila dimentsio anitzeko azterketarekin neurtzen da, honako hauek kontuan izanik:

- Jardute-ildo bakoitza osatzen duten ekintzak **Fisikoki gauzatzea**
- Adierazleen bidez **Eskuratutako emaitzak**
- Aurrekontuaren araberako **Finantza Egikaritzea**




Azkenik, Planerako ezarritako **helburu estrategikoak eta adierazleak** betetzeari dagokion aurrerapen-maila aztertuko da..

# 02 EKONOMIA ZIRKULARREKO ETA BIOEKONOMIA PLANA 2024

Euskadiko ekonomia materialaren kontsumotik eta hondakinen sorreratik banantzen ari da **ekonomia zirkularreko neurriak bultzatzeari esker.** Aldi berean, **bioekonomiarekin lotutako jardute-eremu** bat **biziagotzeko** premia argia ikusten da.

## EKONOMIA ZIRKULARREKO ETA BIOEKONOMIAKO JARDUKETA-LERROAK




1. Errendimendu eta balio erantsi handiko negozio-eredu zirkular berriak.
2. Berrikuntza eta teknologia berriak ekonomia zirkularrean eta bioekonomian.
3. Material jasangarri berriak.

4. Produktu eta eraikinen ekodiseinua.
5. Fabrikazio efizientea eta baliabide jasangarrien ustiapena.
6. Bioekonomia zirkularraren abaguneak indartzea.

7. Kontsumo zirkularra. Eskaria eta merkatuko baldintzak sortzea.
8. Elikagai-xahuketa.
9. Plastikoen kontsumoa.

10. Hondakinen kudeaketa jasangarria.
11. Bigarren mailako lehengaiak.

**Aldi berean, 11 Jardute Ildoan, guztira, 53 ekintzatan azpibanatzen dira.**

# PLANAREN HELBURUAK

Planean 3 helburu estrategiko, hura egikarituz erdiestekoak, eta helburu espezifikoak, Euskadik bioekonomia arloan dituen erronkekin lotzen direnak, zehazten dira.



# Jardute Ildoek Helburu Estrategikoetan egiten duten ekarpena

| ESPARRUAK | JARDUTE-ILDOAK | Materialaren produktibitatea % 30ean areagotzea | Materia zirkularraren erabilera-tasa % 30ean areagotzea | BPGd unitateko hondakinen sorrera-tasa % 30ean murriztea |
|---|---|---|---|---|
| Lehiakortasuna eta berrikuntza | **1.** Errendimendu eta balio erantsi handiko negozio-eredu zirkular berriak. | Eragin handia | Eragin Ertaina | Eragin txikia |
| | **2.** Berrikuntza eta teknologia berriak ekonomia zirkularrean eta bioekonomian. | Eragin Ertaina | Eragin Ertaina | Eragin Ertaina |
| | **3.** Material jasangarri berriak. | Eragin handia | Eragin Ertaina | Eragin txikia |
| Ekoizpena | **4.** Produktu eta eraikinen ekodiseinua. | Eragin handia | Eragin Ertaina | Eragin Ertaina |
| | **5.** Fabrikazio efizientea eta baliabide jasangarrien ustiapena. | Eragin handia | Eragin txikia | Eragin Ertaina |
| | **6.** Bioekonomia zirkularraren abaguneak indartzea. | Eragin txikia | Eragin handia | Eragin Ertaina |
| Kontsumo zirkularra | **7.** Kontsumo zirkularra. Eskaria eta merkatuko baldintzak sortzea | Eragin Ertaina | Eragin txikia | Eragin handia |
| | **8.** Elikagai-xahuketa. | Eragin Ertaina | Eragin txikia | Eragin handia |
| | **9.** Plastikoen kontsumoa. | Eragin txikia | Eragin txikia | Eragin Ertaina |
| Hondakinen eta bigarren mailako lehengaien kudeaketa | **10.** Hondakinen kudeaketa jasangarria | Eragin txikia | Eragin handia | Eragin handia |
| | **11.** Bigarren mailako lehengaiak | Eragin Ertaina | Eragin handia | Eragin txikia |

Eragin handia · Eragin Ertaina · Eragin txikia



NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE
ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

# 03 PLANA EGIKARITZEA:
## EKINTZAK, EKINTZEN EMAITZAK ETA AURREKONTUA

## Ekintzak eta jardute-ildoen aurrerapen-maila

**1. jardute-ildoa.** Errendimendu eta balio erantsi handiko negozio-eredu zirkular berriak.

**Emaitzak:** Enpresetako fakturazioa produktu zirkularragoetan areagotzera eta 400 pertsona baino gehiago ekonomia zirkular aroan prestatzera bideratutako 100 proiektu baino gehiago abiaraztea

**Aurrerapen-maila**
1JI




**Egikaritze fisikoa**
0 Ekintza Finantzatu
7 Ekintza Hasita
0 Ekintza Hasteke

Ekintza kopurua guztira
**7**

**Finantza Egikaritzea**

2021 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 550.000 €
Egikaritua: 1.848.000 €

2022 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 1.100.000 €
Egikaritua: 598.000 €

# Ekintzak eta jardute-ildoen aurrerapen-maila

## 2. jardute-ildoa. Berrikuntza eta teknologia berriak ekonomia zirkularrean eta bioekonomian.

**Emaitzak:** Ekonomia zirkular eta bioekonomia arloan zainketa-sistema bat sortzea; eta ekodiseinuan egindako inbertsioari laguntza emateko, 100 proiektu baino gehiago abiaraziz

**Aurrerapen-maila**
2JI




**Egikaritze fisikoa**
2 Ekintza Finantzatu
4 Ekintza Hasita
2 Ekintza Hasteke

Ekintza kopurua guztira
**8**

**Ejecución financiera**

| 2021 ekitaldia | 2022 ekitaldia |
|---|---|
| Aurrekontuan sartua: 3.950.000 € | Aurrekontuan sartua: 5.325.000 € |
| Egikaritua: 1.272.000 € | Egikaritua: 1.989.000 € |

## 3. jardute-ildoa. Material jasangarri berriak.

**Emaitzak:** BEG emisio gutxiago dakarren material zirkularraren erabilera akuilatzeko eta Euskadiko industrian teknologia digitalen bidezko esperimentazioa bultzatzeko kontzientziazio-programa bat garatzea, lagunetan 1,5 milioi baino gehiago mobilizatuta eta 350 proiektubaino gehiago diruz lagunduta.

**Aurrerapen-maila**
3JI




**Egikaritze fisikoa**
0 Ekintza Finantzatu
3 Ekintza Hasita
1 Ekintza Hasteke

Ekintza kopurua guztira
**4**

**Finantza Egikaritzea**

| 2021 ekitaldia | 2022 ekitaldia |
|---|---|
| Aurrekontuan sartua: 200.000 € | Aurrekontuan sartua: 250.000 € |
| Egikaritua: 15.000 € | Egikaritua: 15.000 € |

# Ekintzak eta jardute-ildoen aurrerapen-maila

## **4. jardute-ildoa.** Produktu eta zerbitzuen ekodiseinua

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Emaitzak:** Ekonomia zirkularreko printzipioak aplikatzeko eta ekonomia zirkular arloan eraikuntza-irizpide berriak ezartzeko metodologiak, tresnak eta 40 proiektu baino gehiago garatzea | **Aurrerapen-maila**<br>4JI<br><br>%40 | **Egikaritze fisikoa**<br>1 Ekintza Finantzatu<br>2 Ekintza Hasita<br>2 Ekintza Hasteke | Ekintza kopurua guztira<br>**5** |
| | | **Finantza Egikaritzea**<br>2021 ekitaldia<br>Aurrekontuan sartua: 400.000 €<br>Egikaritua: 221.000 € | 2022 ekitaldia<br>Aurrekontuan sartua: 475.000 €<br>Egikaritua: 137.000 € |

## **5. jardute-ildoa.** Fabrikazio efizientea eta baliabide jasangarrien ustiapena.

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Emaitzak:** Pyme Zirkularra Programan tarteko 25 eragile atxikitzea eta 100 enpresa txiki eta ertain baino gehiago mobilizatzea; eta eraikuntza industrializatua eta manufaktura-industrian fabrikazioa efizientea sustatzeko. | **Aurrerapen-maila**<br>5JI<br><br>%42 | **Egikaritze fisikoa**<br>0 Acciones Finalizadas<br>5 Acciones Iniciadas<br>1 Acción Sin iniciar | Ekintza kopurua guztira<br>**6** |
| | | **Finantza Egikaritzea**<br>2021 ekitaldia<br>Aurrekontuan sartua: 3.950.000 €<br>Egikaritua: 1.064.000 € | 2022 ekitaldia<br>Aurrekontuan sartua: 600.000 €<br>Egikaritua: 1.104.000 € |

# Ekintzak eta jardute-ildoen aurrerapen-maila

## **6. jardute-ildoa.** Bioekonomia zirkularraren abaguneak indartzea.

**Emaitzak:** 20 sentsibilizazio-ekintza, 3 ekitaldi, prestakuntza-ekintza 1 eta 9 proiektu egitea, sektore ekonomikoen eta ikasleen artean bioekonomia zirkularra bultzatzeko xedez.

**Aurrerapen-maila**
6JI




**Egikaritze fisikoa**
0 Ekintza Finantzatu
4 Ekintza Hasita
0 Ekintza Hasteke

Ekintza kopurua guztira
**4**

**Finantza Egikaritzea**

| 2021 ekitaldia | 2022 ekitaldia |
| --- | --- |
| Aurrekontuan sartua: 0 € | Aurrekontuan sartua: 500.000 € |
| Egikaritua: 0 € | Egikaritua: 0 € |

## **7. jardute-ildoa.** Kontsumo zirkularra. Eskaria eta merkatuko baldintzak sortzea.

**Emaitzak:** Tokiko erakundeetan eta enpresatan ekonomia zirkularra bultzatzeko 8 ekimen garatzea, eta negoziorako aukera berriak sustatzea. Era berean, ingurumen-komunikazioa bultzatzeko ekintzak burutu dira, eta herritarrei zuzendutako informazio-kanpainak garatu dira.

**Aurrerapen-maila**
7JI




**Egikaritze fisikoa**
0 Ekintza Finantzatu
4 Ekintza Hasita
1 Ekintza Hasteke

Ekintza kopurua guztira
**5**

**Finantza Egikaritzea**

| 2021 ekitaldia | 2022 ekitaldia |
| --- | --- |
| Aurrekontuan sartua: 150.000 € | Aurrekontuan sartua: 200.000 € |
| Egikaritua: 25.000 € | Egikaritua: 74.000 € |

# Ekintzak eta jardute-ildoen aurrerapen-maila

## **8. jardute-ildoa.** Elikagai-xahuketa.

**Emaitzak:** Herritarrak elikagaien kontsumo arduratsu baten inguruan kontzientziatzeko 30 ekintza eta hezkuntza-komunitatean kontzientziatzeko 35 ekintza, eta 90 proiektu baino gehiago garatzea.

**Aurrerapen-maila**
8JI




**Egikaritze fisikoa**
0 Ekintza Finantzatu
4 Ekintza Hasita
0 Ekintza Hasteke

Ekintza kopurua guztira
**4**

**Finantza Egikaritzea**

2021 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 50.000 €
Egikaritua: 8.593.000 €

2022 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 75.000 €
Egikaritua: 8.594.000 €

## **9. jardute-ildoa.** Plastikoen kontsumoa.

**Emaitzak:** Erabilitako plastikoak birziklatzeko eta bigarren mailako plastikoak erabiltzeko soluzioak diseinatzeko 11 proiektu garatzea.

**Aurrerapen-maila**
9JI




**Egikaritze fisikoa**
0 Ekintza Finantzatu
1 Ekintza Hasita
2 Ekintza Hasteke

Ekintza kopurua guztira
**3**

**Finantza Egikaritzea**

2021 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 75.000 €
Egikaritua: 0 €

2022 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 100.000 €
Egikaritua: 0 €

# Ekintzak eta jardute-ildoen aurrerapen-maila

## **10. jardute-ildoa.** Hondakinen kudeaketa jasangarria.

**Emaitzak:** Hondakinen tratamendurako teknologia berriak, efizienteagoak, baitaratu eta garatzeko eta Euskadin hondakinen kudeaketarako sektore aurreratu bat indartzeko 79 proiektu garatzea.

**Aurrerapen-maila**
10JI




**Egikaritze fisikoa**
1 Ekintza Finantzatu
2 Ekintza Hasita
1 Ekintza Hasteke

Ekintza kopurua guztira
**4**

**Finantza Egikaritzea**

2021 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 175.000 €
Egikaritua: 2.772.000 €

2022 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 200.000 €
Egikaritua: 2.108.000 €

## **11. jardute-ildoa.** Bigarren mailako lehengaiak.

**Emaitzak:** Lehengaiak ordezteko, berrerabilpenerako, konponketarako eta birziklapenerako 60 ikerketa-proiektu garatzea, ekonomia zirkularra sustatuz

**Aurrerapen-maila**
11JI




**Egikaritze fisikoa**
0 Ekintza Finantzatu
3 Ekintza Hasita
0 Ekintza Hasteke

Ekintza kopurua guztira
**3**

**Finantza Egikaritzea**

2021 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 150.000 €
Egikaritua: 10.000 €

2022 ekitaldia
Aurrekontuan sartua: 175.000 €
Egikaritua: 0 €

# Ekintzak eta jardute-ildoen aurrerapen-maila

| Ekintzen egikaritzeen jarraipena | | |
|---|---|---|
| Hasteke | 10 | %19 |
| Hasita | 39 | %74 |
| Amaituta | 4 | %7 |
| **Guztira** | 53 | %100 |

Ekintzen egikaritzea



| Hasteke | Hasita | Amaituta |
|---|---|---|
| %19 | %74 | %7 |

## Ekintzen egikaritzeen aurrerapen-maila




## Jardute-ildoak




% 46ko aurrerapena
**Lehiakortasuna eta berrikuntza**

% 44ko aurrerapena
**Ekoizpena**

% 36ko aurrerapena
**Kontsumo zirkularra**

% 50eko aurrerapena
**Hondakinen eta bigarren mailako lehengaien kudeaketa**

LEGENDA: Gorria -> % 0- % 25 Horia -> 25- % 50 Berdea -> % 50etik gora

**Planeko ekintzen egikaritzeari dagokion aurrerapen-maila** Planeko ekintzen emaitzaren batez bestekoarekin lortzen da, horien egikaritze-egoera eta horietako bakoitzerako ezarritako haztapena kontuan izanik *(hasteke dauden ekintzak: aurrerapena % 0koa, hasitako ekintzak: aurrerapena % 50ekoa, amaitutako ekintzak: aurrerapena % 100ekoa).*

# Jardute-ildoen emaitza

| Jardute-ildoa | Emaitzen aurrerapen-maila 2021 | Emaitzen aurrerapen-maila 2022 | Emaitzen aurrerapen-maila 2024. urtearekiko |
|---|---|---|---|
| 1 JI | %66 | %84 | %45 |
| 2 JI | %67 | %59 | %48 |
| 3 JI | %61 | %81 | %41 |
| 4 JI | %58 | %61 | %56 |
| 5 JI | %65 | %59 | %43 |
| 6 JI | %158 | %130 | %82 |
| 7 JI | %43 | %52 | %30 |
| 8 JI | %82 | %80 | %49 |
| 9 JI | %37 | %50 | %22 |
| 10 JI | %84 | %92 | %63 |
| 11 JI | %94 | %70 | %51 |
| **Planeko orotariko emaitza** | **%74** | **%74** | **%48** |

*Oharra*: Taulako zutabeek irudikatzen dute jardute-ildo bakoitzean egindako ekintzetan2021ean eta 2022an lortutako emaitzen batez besteko aurrerapen-maila, urtero aurreikusitako guztiarekin alderatuz. Azken zutabeak 2024. urtearekin alderatuz metatutako aurrerapen-maila (2021 eta 2022 batuta) irudikatzen du.

**Emaitzen eskurapen-maila**




Jardute Ildoen emaitzak bat datoz ildo horiek egikaritu ondoren lortutako adierazle/mugarrietako helburuen betetze mailarekin.

# Finantza Egikaritzea

| Epealdia | Planeko Aurrekontua | Aurrekontu Egikaritua | Hasierako aurrekontuaren gaineko Egikaritzea | Beste Eragile Parte-hartzaile batzuetan eragindako gastua |
|---|---|---|---|---|
| 2021. urtea | 6.250.000 € | 15.820.000,00 € | 253% | 33.564.000 € |
| 2022. urtea | 9.000.000,00 € | 14.619.000,00 € | 162% | 41.856.000 € |
| 2021-2022 epealdia | 15.250.000,00 € | 30.439.000,00 € | 200% | 75.420.000 € |
| Guztira 2024 | 31.975.000,00 € | | **95%** | |




Planaren egikaritzearen azterketa eta jarraipena egiteko Batzordearen bilkuraren ondotik, aurrekontu-partida gehigarriak zenbatu ziren, Batzorde horretan parte hartu zuten hainbat eragilek mobilizatuak, Ekonomia Zirkularreko eta Bioekonomiako Planeko helburuak betetzen ere laguntzeko ekintzak garatzeko.

Horretarako, taula honetan, Ekonomia Zirkularreko eta Bioekonomiako Planean zehaztutako jarduketen eragile arduradun nagusiek egikaritutako aurrekontuaren azterketa ez ezik, zutabe gehigarri bat jasotzen da, aipatutako eragindako gastu hori islatzen duena, 75 MM eurotik gorako zenbatekoa erakusten duena.

# 04 PLANAREN INGURUMEN-INPAKTUA



NEIKER MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE
ihobe ingurumen hobekuntza mejora ambiental
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

# Jarraipen adierazleak

## JARRAIPEN-ADIERAZLEAK JARDUTE-ILDOKO

| | | Oinarri-adierazlea | 2024rako helburua | 2022 adierazlea | betetzea 2024ko helburua |
|---|---|---|---|---|---|
| 1.JL | Enpresen fakturazioa produktu zirkularragoetan | 2.852 MM€ (2016) | 3.687 MM€ | * | - |
| 2.JL | ZTBParen barnean Ekonomia Zirkular eta Bioekonomiaren I+G-ra zuzendutako gastua (Eremua: RIS3 ekosistemak) | 23.927 mila € (2019) | 30.000 mila € | * | - |
| 3.JL | Birziklapenarekin eta lehengai sekundarioekin lotutako patenteen kopurua | 2 (2018) | 4 | * | - |
| 4.JL | Produktu zirkularren euskal katalogoari gehitutako produktuen kopurua | 158 (2020) | 300 | 168 | %56 |
| 5.JL | Ekonomia Zirkular eta Bioekonomiaren alorretik Teknologia Berrien Euskal Zerrendari gehitutako teknologien kopurua | 92 (2021) | 100 | 92 | %92 |
| 6.JL | Bioekonomia zirkularraren fakturazioa eta sektoreak Euskadiko BPGari egindako ekarpena (%) | Garatzeko bidean | | * | - |
| 7.JL | Erosketa publiko berdeak kontratazio globalean duen ehunekoa | % 34 (2021) | % 38 | 32% | %84 |
| 8.JL | Biztanle bakoitzeko sortutako elikagai-hondakinen osoko kantitatea | 172 Kg/biz (2016) | 140 Kg/biz | 138kg biztanleko | %99 |
| 9.JL | Merkaturatzen diren plastikozko ontzietatik, birziklagarriak direnen ehunekoa | Garatzeko bidean | | * | - |
| 10.JL | Jatorrian bereizitako hondakinen ehunekoa | % 59,8 | % 72 | %66,00 | %92 |
| 11.JL | Birziklapenaren sarrera-tasa bere balio-bizitzaren amaieran | Garatzeko bidean | | * | - |

* 2022ko adierazleen daturik gabe.

## EKINTZA PLANAREN EMAITZEN ADIERAZLEAK

| | Oinarri-adierazlea | 2024rako helburua |
|---|---|---|
| Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren printzipioak barne hartzen dituzten euskal enpresen kopurua | 200 (2020) | 400 |
| Enpresek bultzatutako inbertsio berdea | 65 MM€ (2020) | 120 MM€ |
| Erosketa eta Kontratazio Publiko berdean mobilizatutako aurrekontua | 500 MM€ (2020) | 700 MM€ |
| Bioekonomia zirkularrarekin lotutako jarduera duten enpresa sortu berrien kopurua | | 4 |
| Bioekonomia zirkularrarekin lotutako zeharkako proiektu bultzatzaileen kopurua Euskadin | | 4 |

* 2022ko adierazleen daturik gabe.

| Helburu estrategikoak | Oinarrizko balioa 2018 | Egungo balioa 2022 | Xede balioa 2024 | Betetze-maila |
|---|---|---|---|---|
| Materialaren produktibitatea % 30ean areagotzea (€/kg) | 2,6 €/kg | 3 | 3,4 | %50 |
| Materia zirkularraren erabilera-tasa % 30ean areagotzea | 7,9% | 13,8% | 10,0% | %281 |
| BPGd unitateko hondakinen sorrera-tasa % 30ean murriztea (kg/mila €) | 71kg/mil € | 69 | 53,9 | %12 |

**Helburu estrategikoetako adierazleen betetze-maila** erdietsitako helburuaren portzentaje modura kalkulatzen da, kontuan izanik oinarrizko balioa eta 2024. Urteko azken xedea

## Jarduketek Planeko helburu estrategikoei begira egindako ekarpena

Kontuan izanik jardute-ildo bakoitzeko **ekintzen** egikaritzearen **aurrerapen-maila** eta jardute-ildo bakoitzak helburu estrategiko bakoitzean duen **inpaktua** (handia-ertaina-baxua) **jardute-ildo bakoitzak helburu estrategiko bakoitzari egindako ekarpena** kalkulatzen da.
Jardute-ildo guztien ekarpenen baturak helburu estrategiko bakoitzean guztira egindako ekarpena irudikatzen du.

| Helburu estrategikoak | Ekarpena ekintzen egikaritzeei begira |
|---|---|
| Materialaren produktibitatea % 30ean areagotzea | %43 |
| Materia zirkularraren erabilera-tasa % 30ean areagotzea | %45 |
| BPGd unitateko hondakinen sorrera-tasa % 30ean murriztea | %43 |

# 05 ONDORIOAK

Gaur egun bere egikaritzearen erdian dagoen 2024ko Ekonomia Zirkularreko eta Bioekonomia Planean, planifikatutako, **ekintzen % 74 hasi** da. Horrek esanahi du, 53 ekintzatik, guztira 39 hasi direla; horietako **4** jadanik **amaituta** daude, eta soilik **10**, hots, planifikatutako **ekintzen** % 19, **daude hasteke**. Horien artean, ezinbestekoa izango da honako hauek lehenestea, abiaraz daitezen: *“Klima-aldaketan inpaktu handia duten materialen ibilbide-orri bat prestatzea”, “Eragile gakoekin borondatezko adostasunak finkatzea plastikozko ontzien % 75 birziklagarriak izatea lortzeko”, “Lehen mailako hiri-hondakinen zero isurketarako urratsak ematea udalekin eta Foru Aldundiekin koordinazioan”.*

Halaber, oro har, ikusten denez, ekintzen **egikaritzearen aurrerapen-maila** (**% 44**) bat dator adierazleen bidez ezarritako **emaitzen eskurapenarekin** (**% 48**). Beraz, planifikatutako eta garatutako **ekintzak eraginkorrak, koherenteak eta egokiak** dira.

Haatik, ekintza horiek garatzeko egindako gastuak hasieran aurrekontuan sartutako kopurua gainditu du modu nabarian, eta 2020-2021 epealdian **Planeko epealdi osorako planifikatuta aurrekontuaren % 95 egikaritu da**. Gainera, Planean parte hartu duten beste eragile batzuengana efektu hori bideratu da, 75 MM euroko kopurua gaindituz.









Azkenik, ikus daitekeenez, Ekonomia Zirkularreko eta Bioekonomiako Planaren ezarpena baliagarri izaten ari da espero ziren emaitzak erdiesteko; izan ere, 2021-2022 egikaritze-epean finkatutako helburuak bete dira. Haatik, ikus daitekeenez, Planaren egikaritzea **1. helburua,** *Materialaren produktibitatea % 30ean areagotzea*, erdiestea ahalbidetzen ari da; aldiz, **2. helburuari dagokionez,** *Materia zirkularraren erabilera-tasa % 30ean areagotzea* **, badirudi kanpoko faktoreen baitan dagoela**. Azkenik, **3. helburua,** *BPGd unitateko hondakinen sorrera-tasa % 30ean murriztea,* da **arreta gehien eskatzen duena** planaren garapeneko hurrengo epealdian.

Orobat, agerian geratzen da jarraipen-adierazleak zehazteari eta kalkulatzeari begira hobetzeko premia, horrek kalitatezko datuak eman ditzan Planaren jarraipena eta azken ebaluazioa egiteari so.

## Planeko helburu estrategikoen betetze-maila






info@ihobe.eus / **www.ihobe.eus**



ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

NEIKER
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE